

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Behin betiko onartzea “Lukiano, Aperregi eta Gilierna herrietako saneamendu eta hondakin urak arazteko proiektua, 1. fasea” zabaltzeak eragindako ondasun eta eskubideak eta ondasun eta eskubide horien titularrak deitzea aldez aurreko aktak, okupazio akta eta balio justuaren akta egiteko ekitaldira

Foru Gobernu Kontseiluak, 2019ko urriaren 29an egindako bilkuran, 682/2019 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Handitzea “Lukiano, Aperregi eta Gillerna herrietako (Araba) saneamendu eta hondakin urak arazteko proiektua” burutzeko eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluak, urtarrilaren 30eko 45/2018 Erabaki bidez, onetsi zuen “Lukiano, Aperregi eta Gillerna herrietako (Araba) saneamendu eta hondakin urak arazteko proiektuak” eragindako ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda eta jendaurrean jartzea hura.

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 445/2018 Erabaki bidez, erantzun ziren aipatutako proiektuaren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean egon zen bitartean haren aurka aurkeztutako alegazioei eta behin betiko onetsi zen zerrenda.

Ondoren eta 2019ko martxoaren 8ko idazki bidez, Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak hau adierazi zuen: “Honekin batera bidaltzen da epigrafeko proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda berrikusi berria, non sartu baitira hasieran sartzea pentsatzen ez ziren hiru lurzati (publikoak zirelako), lurron zortasun eta okupazioak finkatu eta izapidetu daitezten. 1/090, 37/090 eta 37/080 finkak dira lurzati horiek.”

Aipatutako handitzeari ekin ahal izateko, desjabetze espedientearen sortu behar dira 1/090 lurzattia (Aperregiko Administrazio Batzarrarena dena) eta 37/090 eta 37/080 lurzatiak (Bitorianoko Batzarrarenak), proiektuaren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen zerrenda berrian sartu beharko baitira. Horien onespena da erabaki honen xedea.

Nahitaezko Desjabetze Legearen eta Nahitaezko Desjabetze Arautegiaren 15. artikuluen arabera, okupazioa zabaldu daiteke handitzeak egiteko ezinbestekoak diren ondasunei. Kasu honetan, horiek desjabetzearen helburu, obra edo zerbitzuari ere atxikiko zaizkie. Modu berean, NDLk ezartzen du, desjabetze espedientea 52. artikuluan jasotako premiazko prozeduraz izapidetzen denean, ulertuko dela beteta dagoela desjabetu beharreko ondasunak okupatu beharraren adierazpen izapidea, onartutako eta geroago aldatutako proiektu eta zuinketen arabera; eskubidea emango du berehala okupatzeko. Beraz, desjabetzearen handitzea izapidetu behar da, premiazko prozedura bidez.

Kontuan hartu da Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.26) artikulua Foru Gobernu Kontseiluari eskumena ematen diola desjabetze ondorioetarako onura publikoaren adierazpena dakarten proiektuak onesteko.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko Legearen 4.d artikuluan, 1986ko testu bateginaren 94. artikuluan eta Nahitaezko Desjabetze Legearen 10. artikuluan xedatutakoa aztertu da.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuen proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hona hartu den

ERABAKIA

Lehenengoa. Handitzea "Lukiano, Aperregi eta Gillerna herrietako (Araba) saneamendu eta hondakin urak arazteko proiektua" burutzeko eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda (erabaki honen eranskinean jasotzen direnak).

Bigarrena. Izapidetzea ondasun eta eskubide horien desjabetzea Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan jasotako presazko prozeduraren bidez.

Hirugarrena. Esleitzea 8.341,96 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko aurrekontuko "Desjabetze hidraulikoak" izeneko 50106.5300.6000004 partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-4693/000.19.5.19), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Laugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala finka horiei dagokien balio justuaren kopurua. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori lehen aipatutako lerro eta xedapen erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Zuiako Udaletxeetako lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 6a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

LUKIANO, APERREGI ETA GILIERNA HERRIETAKO SANEAMENDU ETA HONDAKIN URAK ARAZTEKO PROIEKTUA, 1. FASEA,
 PROYECTO DE SANEAMIENTO Y DEPURACIÓN DE AGUAS RESIDUALES DE LAS LOCALIDADES DE LUKIANO, APERREGI Y GUILIERNA (ALAVA), FASE I.

Esp./Expte. 2018/1-A

FINKAREN ZK.	TITULARREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA.m ²		EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURZATIA				BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKO SANEAMENDUA 3m		
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES	PARCELA	TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	SUPERFICIE AFECTADA.m ²	SERVIDUMBRE Saneamiento 3m	DÍA	HORA
1/090	JUNTA ADMINISTRATIVA DE APERREGUI	1	638	ZUJIA	ZELAIA / PRADERA		379	115	4/12/19	10.00
37/090	JUNTA ADMINISTRATIVA DE VITORIANO	2	299	ZUJIA	MENDIA / MONTE		871	234	4/12/19	10.45
37/080	JUNTA ADMINISTRATIVA DE VITORIANO	2	300	ZUJIA	MENDIA / MONTE		1.859	530	4/12/19	10.45